



<b>Izenburua</b>	Maitatu euskaraz
<b>Egilea</b>	Ttakun Kultur Elkartea
<b>Data</b>	2010/04/22

# aurkibidea

---

<b>aurkibidea.....</b>	<b>2</b>
<b>1. Sarrera.....</b>	<b>3</b>
<b>2. Akats, aurrekariak eta premisak.....</b>	<b>4</b>
<b>3. Helburua.....</b>	<b>6</b>
<b>4. Metodologia.....</b>	<b>7</b>
<b>5. Esperientzia pilotuak.....</b>	<b>11</b>
<b>6. Ttakun K.E. garatutako produktua.....</b>	<b>11</b>

## 1. Sarrera

---

Gazteen egitasmoen inguruko ponentzia honetan, praktikan aritzen garenon partetik ziurrenik bestelako eskaintza edo ekintza zerrenda ikustea espero zenuten. Bada hala ere, gure ustez praktika horretatik kontziente egin eta sistematizaziora eraman beharreko kudeaketa lan garrantzitsu bat, eta ez da soilik gazteen interesekin asmatzea. Hori edozeinek gazteei galdetuta egin lezake.

Guk hemen aurkezten duguna lan egiteko modu bat eta ikuspegi ezberdin batekin abiatzea dakar, gazteekin egiten dugun dinamizazio lana, eta horretan trebatzean dago gakoa.

Euskara, hizkuntza da, komunikaziorako tresna. Nahiz eta guretzat tresna horren erabilpena handitzea den eta kontziente izan behar dugu, erabilgarria den heinean erabiliko dela hizkuntza. Askotan identitate eta tresnaren arteko nahasmenean galdu izan gara; baina sinplifikatu eta oinarrietara joanez, zertarako balio du hizkuntzak? Tresna da, gure arteko erlazioan komunikatzen laguntzen gaituen hizkuntza.

Orain arte modu kontzientean egin dugu lan tresna helburu bilakatuz. Horrek bidean, esfortzu asko egin eta arrakasta gutxi lortzera eraman gaitu. Beharrezkoa da gure energiaren efektibitatea bilatzea eta horretarako ohartu gara gure lan egiteko modua aldatu behar dugula. Tresna baliagarria bilakatu behar dugu, eta hori inkontzientetik lortuko dugu.

Honek gauzak modu batera erraztu egiten ditu gure ikuspuntutik. Dinamizataileak bere helburua, prozesuan jarri behar dute, zer hizkuntzetan egiten den prozesua alegia, horregatik gure ustez, prozesua da garrantzitsua, beraz, helburu eta dinamika guztiak balekoak dira horretarako. Taldearekin ados daiteke edozein dinamika edo helburu, prozesua euskaraz egiten den heinean.

Honek ikuspuntua aldatzea eskatzen du. Askotan helburu bilakatzen ditugu gure egitasmoak, eta bitarteko hutsak dira. Gazteekin bereziki, gora behera asko izango dira, eta aldaketa asko izan daiteke gogo eta interesen inguruan. Kontua da, hori momentu oro kudeatzen jakitea.

## 2. Akats, aurrekariak eta premisak

---

### Akatsak...

Ikuspegi berri honetara etortzeko, aurretik egindako lanean zeuden oinarrizko ideia batzuk atzean utzi behar izan ditugu, eta lau puntu hauetan laburbildu ditzakegu:

- Euskara eta bere erabilpena helburu esplizitu bilakatu gazteekin. Tresna, helburu bilakatu.
- Ahalegin nagusienak etekinik gutxien emango duten taldeetan jarri. Ez dugu pentsatu ere agin orain arte euskaldun "jatorrekin" lanik zegoenik, beti euskalduntzeko bidean zeuden horietan jarri dugu gure fokua.
- Hizkuntz militante egin nahi izan ditugu euskaldun gazteak, militantzia bera desagertzen ari den gizarte batetan.
- Euskaldun jaio diren haurrak derrigorrezko hizkuntz arduradun bilakatzen saiatu izan gara.

### Aurrekariak...

Orain arte aisian egindako lanean oinarritu gara. Bertan hezitzailea izan da erreferentea eta horren baitan lan egin dugu (HAED)<sup>1</sup>. Baina gure helburuak erreferentea taldearekin dagoen tartetara mugatu dira nagusiki. Hau da, Hezitzaileak Asko Egin Dezakete (HAED) metodologian oinarrituta hezitzailearen helburuak eta eragin tartea taldeko partaide edo zentro izan dena mugatu dira. Taldetik kanpo ez eragiteko joera hartu dugu, eta taldea irakurtzeko baliatu dugu. Noski lan egiten dugun egoera eta taldeen hizkuntza erabilera hezitzailearekin helburu zenetan.

Orain, taldean ematen diren dinamika eta partaideak baliatuko ditugu, taldeko kideen arteko erabilera sustatzeko. "Talde barruan egosiko dira babarrunak, taldearenak bai dira beraien ohitura erabakitzeko eskubideak". Erreferenteak beste tresna batzuk baliatuko ditu taldea irakurri, eta taldekideekin edozein dinamika adostuz, erronka jarritz markoa ziurtatuko du, taldekideen arteko erabilera prozesuan zehar bermatzeko eta prozesua izango da erreferenteak erabiliko duen tresna ohitura aldaketa, hizkuntza ohitura kasu, garatzeko .

### Premisak...


Ondorengo aurkezpena uler ahal izateko ezinbesteko dugu zein premisetan aritu garen azaltzea:

- KOMUNIKAZIOA ETA HIZKUNTZA: komunikazio gizakiak dugu behar bat da. Komunikazioaren %90 hitz gabeko mintzairan ematen da. Gizartearen gehiengoarentzat, komunikazio sofistikatuaren tresna da hizkuntza. Komunikatu ezinak edo komunikatzen zailak diren sententzio eta sentimenduak adierazteko artea izango dugu lagun: hizkuntza artea, literatura edo poesia bilakatuko da, baina badira hainbat honen inguruan: pintura, musika, eskultura,...
- HIZKUNTZA ETA TALDEA: hizkuntzaren berezko funtzioa taldean datza. Taldearekin (bat baina gehiago) komunikatzeko erabiltzen dugu hizkuntza ezta?.
  - HIZKUNTZA ETA BURMUINA: Gizakiak dugun funtseko ezaugarria burmuinen datza. Hizkuntzaren beharra, ezker burmuinean kokatzen da eta kontzeptuak gorde eta sailkatzeko ezinbesteko tresna dugu gizakiak.

---

<sup>1</sup> HAED: Hezitzaileek Asko Egin Dezakete

- GAUR EGUNGO GIZARTEA ETA HIZKUNTZA. ELEANIZTASUNA. Mundu globalean bizi gara eta mundura ireki da gizakia, baina bestalde internet dela medio mundua etxera sartu zaigu. Hizkuntza idatzia tresna beharrezko bilakatu zaigu mundura irekitzeko eta mundua gureganatzeko.
- ALDAKETA. Gizakiak ez du aldaketarik gogoko, (aldaketa egoera berriei erantzuteko egiten du) Aldaketak energia ekarpena behar du nahi eta nahi ez.
- HIRUKO MAGIKOA. Edozer dela ere, egitera gaitzen gaituen osagaiak:



Aurkezten dizuegun tresna unibertsala da; hau da, edozein adin eta talde motarentzat balio duena.

Euskara, hizkuntza da, komunikaziorako tresna hori garatu eta zabaldu nahi izan ezker, dinamizataileak bere helburua prozesuan jarri behar dute, helburu eta dinamika guztiak balekoak dira baina prozesu horretarako. Beraz, taldearekin ados daiteke edozein dinamika edo helburu prozesua euskaraz egiten den heinean. Honek aukera itzelak irekitzen dizkio euskalgintzari: ez da beharrezko euskara zaletasuna, edo euskaren aldeko militantzia, jarduna euskaraz garatzea nahikoa da, jarduera euskaraz egitea, erabilerari dagokienez ohitura aldaketa bat emateko, eta euskararen erabilera garatzeko.

Aurrerantzean azalduko ditugun konklusioak hirukiaren behatzetik datozkigu. Ikusi baitugu gure historian alde bat hanka motz geratu izan zaigula: nahiarena, motibazioarena eta beraz bentako erronka bide horretan datzala.

### 3. Helburua

---

- Euskararen erabilera handitzea.

Zertarako egin behar dugu euskaraz? Galdera ez da zergatik, zertarako baizik, argi ahal dugu erantzuna?

- Gizakien eta taldeen hizkuntza ereduak aldatzea, euskararen erabilerari dagokionez.

"Arnas guneak" sortu eta elikatzea edozein egoera soziolinguistikoetan, arnas gune naturaletik kanpo bada ere.

- Horretarako behar den energia ahalik eta modu eraginkorrenean inbertitzea.

Efizientzia izatea euskal eragileen erabakietarako tresna, hau da; arrakastaren bila modurik arrazional eta estrategikoenean abiatzea.

- Euskarari erabilgarritasuna bilatzea.

Gure tresna bilakatzea batez ere plazer emango diguten jardueratan. Euskara=plazerra , lokarri emozionala sendotzea gure burmuinean.

## 4. Metodologia

---

- Prozesua euskaraz garatzen den heinean, edozer ekintza edo helburu balekoak dira, prozesuan parte hartzen dutenek euskararen erabilera handitu dezaten.
- Tresna hau unibertsala da: eskola eremuan, aisian, helduekin...
- Tresnak esperientziaz frogatuak izan dira eta funtzionatu dute.

Metodologia hau nola lortu martxan jartzea da kontua:

### TALDE DINAMIKA

Taldea pertsona multzoa baina gehiago da. Taldeak bere dinamikak ditu, bere bizia, bere hautazkoak...

Pertsona mordoa elkarrekin jarriz gero ez da zertan taldea osatuko.

Talde osatzeko zer da beharrezko?:

- Helburu edo ekintza jakin bat. (Elkarren beharra eta kohesioa sortuko duena)
- Erronka. (taldeak bere egingo duena eta taldearen jardueraren motor bilakatuko dena)

Zertan izango du eragin taldeak?

- Taldeak elkarrenganako sentimenduak garatuko ditu. (pentsamendutik sentimendura), eta elkarren arteko "erregelak" ezarriko ditu: janzkera, musika, .... eta HIZKUNTZA.
- Taldeak dinamika propioa hartuko du eta partaideak bertan sartuko dira inkontzienteki. Taldekide sentitzeagatik aldaketa prozesuaren prezioa (prezio hori hizkuntza ohitura aldaketa bada ere) ordaindu egingo du gustura.
- Taldeen arteko sareak sortuko dira eta sare bakoitzak erreferente bat hautatuko du, erreferente hau helburu inplizitu bilakatu arte. Erreferenteak ezarriko du "moda" eta sare soziala, tribu sentimenduz itsatsita geratuko da elkarren artean. Ikus gaur egungo sareak ( emmoak, skinak,.....)

## LIDERGOA

Taldearen barnean partaide guztiak ez dute rol bera jokatzen, eta talde bakoitzak naturalki ezartzen die taldekideei bere rola. Rol hori egoera egonkorretan nahiko egonkorra da eta partaideen pertsonalitate, gaitasun eta inteligentzia moten arabera ezartzen da modu inplizitu eta inkontzientean. Taldekideetako bat edo batzuk aldatuz, edo egoera aldatuz gero rol horiek alda daitezke.

Rol horietako bat liderrarena da. Liderra beharrezkoa du taldeak, oreka eta ziurtasuna ematen dio eta taldeari. Taldea egoera gatazkatsuetatik ateratzeko gai da, noraezean dabilenean bidea markatzeko. Guk aipatzen dugun lider honek ez boterearekin zer ikusirik. Ez da lider ezarria hautatua baizik.

Lidergoaren kudeaketa beraz, ekonomia tresna bat da, energia aurrezteko tresna, liderrekin lan eginez gero, beraiek erakartzen dute taldea. Hiru pertsonekin eginiko esfortzuak 30 pertsona mugituko ditu ....

Liderra erakartzeko, liderraren interesekin bat egin behar dugu, eta edozein dela helburua edo interesa ere, prozesu hori euskaraz gertatuko dela ziurtatzeko.

Liderrak eragin itzela du talde ohituretan, eta liderrak erabilera nola, taldearena hala. Liderrak kontutan hartu eta kudeatu beharra dago taldearen ohitura aldaketa ziurtatu nahi bada.

Guk proposatzen dugun lan ildoan liderrak tresna ezin bestekoak dira lanerako. Liderren, indarra errespetatu eta beraien interesetik habiatzen gara edozein prozesuetan.

## SAREA

Taldeek osatzen dute sarea, eta talde barnean gertatu ohi den bezala, taldeen artean talde batek hartzen du erreferente rola. Gaur egun sarearen bilakaera azkarra eta eraginkorra da sare sozial birtualak eta teknologia berriak medio. Talde erreferentea gustuko dute gehienek eta horretara iristea da gehiengoaren nahia. Taldearen kanpo itxura, bere lorpenak, xarma, ... erakargarri egiten zaio gehiengoari.

Talde erreferente horien jokabide, jarrera eta balioak imitatzeko joera du sareak. Talde erreferentearen lanak asko errazten du beste taldeetan egin behar den lana. Beraz energia ikuspuntutik, talde erreferentean egindako inbertsioa bikoiztu edo hirukoiztu egiten da naturalki. Talde erreferente eremu jakin batean euskaraz hitz egiten duena izaki, besteak euskaraz arituko dira ezinbestean. Jantzera eta ohiturak imitatzearekin batera hizkuntza ohiturak ere zaku berdinean sartzen bai dira.

Sare birtualak ere hor ditugu, eta gazteen esparruan batez ere eragin handia dute sare hauek. Bide hori lantzeaz dugu oraindik.

## KUDEAKETA

Ohitura aldaketa, era estrategikoan bilatu behar da: Ikuspegi globaletik, partikularretara, plangintzatik ekintzetara ...

Eremua zehaztu, baliabideak neurtu eta ekintzetara abiatu. Hau dena, proposatzen dugun marko teorikoaren barruan. Horretarako garatua dugu ERABILI egitasmoa. (6. puntuan garatzen dira ikastaro eta tailerretako bat)

Kudeaketa tresnak behar ditugu :

- IRAKURKETA

- Behin eremua zehaztuz gero, irakurketa beharrezkoa da: nola eratzen dira taldeak? Nortzuk dira liderrak? Zer joera linguistiko dituzte talde eta lider horiek? Zeintzuk dira dinamizatzaileak? Taldeak eginak daude edo taldeen osaketan esku har dezakegu? Talde berriak sortzeko gai gara? Irakurketarako tresna aplikatu behar dugu.
- Zeintzuk dira gure energia edo baliabideak?  
Nola antolatzen ditugu erabilerari dagokienez?
- Indar-guneak?
- Aukerak?
- Ahuleziak?
- Mehatxuak?

- PLANGINTZA

- Ekintza zehaztetara joan aurretik erabakiak hartu: non jarri energiak eta baliabideak. Horretarako ditugu erabakitze matrizeak eta lagungarriak.
- Printzipio bat arrakastaren bila: “esfortzu gutxienarekin etekin handiena lortu daitezkeen talde eta ekintzak lehen”.
- Ekintzak zehaztu eta adostu.
- Prozesua kudeatu ( motibazioa, HAED....)

TALDEA MUGITU: lidergoarekin lan egiteko baliabide eta estrategiak. (6. puntuan garatzen dira ikastaro eta tailerretako bat)

Esanak esan, beharrezkoa da ongi zehaztea zein mailatan ari garen lanean eta beraz zein den dagokigun rola eta erantzukizuna, askotan gerta ohi bai da euskalgintzan rolak eta erantzukizunak eta beraz estrategiak nahastea. Hona hemen guk proposatzen ditugun mailak:

**Dinamizatzaileak:** plangintza orokorraren baitan taldeari dagokion helburuak adostu behar ditut taldearekin. Taldearen prozesua euskaraz garatzea du helburu eta erantzukizunen hartan aipatutako helburua lortzeaz gain, taldearen kohesio eta ohitura aldaketa du. Gazteen hizkuntza ohitura aldaketan ari da lanean.

**Koordinatzaileak:** plangintza orokorraren barruan, erakundearen helburuak zehaztu eta adostu behar ditu dinamizatzaileekin. Dinamizatzaileak motibatu, lagundu eta behar diren baliabideak eskaini. Dinamizatzaileen prestakuntza eta motibatzean du bere lana.

**Arduradunak:** egoera orokorra irakurriaz, helburu orokorrak adostu eta baliabide orokorrak garatu. Erakunde koordinatorak motibatu, lagundu... Koordinatzaileekin batera, koherentzia, baliabideak, efizientzia eta berrikuntza ditu helburu.

- NEURKETA


- Neurketa ezinbestekoa da hobekuntza kudeatzeko. Neurtzen ez dena hobetu dugula esan ahal dezakegu
- Hizkuntzaren erabilera taldean eta taldekideen artean, binakako harremanetan, neurtzen dugu. ( Ktg neurketa)
- Talde erreferente horren eragina sarean, talde erreferentea sortuz gero.
- Aplikazio informatiko baten bidez egingo ditugu taldeko irakurketak. Non, taldekide guztien arteko erabilera harremanak gurutzatuko ditugu. Eta liderren profil linguistikoak, eta taldeko harreman sarea nolakoa den irakurritz.

## 5. Esperientzia pilotuak

Bi esperientzi pilotu aurkezten ditugu; bata iraunkorra Ktg (Kuadrillategi) eta bestea gazteen interesetatik abiatutako erronka baten adierazle Irakutrezin aldizkaria. Azken hau, martxan zegoen proiektu bat zen, baina gazteek ez zioten arreta berezia eskaintzen, egun talde bat dago proiektuan eta erreferente bilakatu dira ikastetxe mailan.

- Ktg – Kuadrillategi
- Irakutrezin aldizkaria

## 6. Ttakun K.E. garatutako produktua



<http://www.ttakun.com/Zerbitzuak/Zerbitzuak.html>

Udaltop lan-topaketa batzuk izan nahi dute. Helburu hori lortzen laguntzeko, ponentziak eskura jarri dira topaketak egin aurretik, nahikoa denbora izan dezan teknikari bakoitzak irakurtzeko, lantzeko eta hizlariari egingo lizkiokeen galderak prestatzeko. Jardunaldietan bertan, jadanik irakurriak egongo diren hitzaldiei adina tarte eman nahi zaie elkarrizketarako eta hausnarketarako tarteei.

Idatzi hemen zure galdera (ez ahaztu web gunetik bideratu behar duzula).

Galdera:

Azalpena:



---

Geltoki kalea 4, behea · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

T\_ (+34) 943 371 448·

[ttakun@ttakun.com](mailto:ttakun@ttakun.com) · [www.ttakun.com](http://www.ttakun.com)